

# Miren Lanz Solbes

PAREAN ETA PAREZ PARE



## IRUNDAR NAFARRA

Lau anai-arrebako familia batean zaharrena. Bidasoa eskualdea sakonki ezagutzen du, bertako sei hezkuntza zentro ezagutu baititu haurtzarotik; "Garaian bizitakoak egin nau eta baikorki baloratzen dut", dio. Bortziriak gertu eta etxe-ko sentitzen ditu, egun Malerrekan bizi eta Irunen lan egin arren. Militantzia sozial eta politikoa intentsiboki ezagutu zituen nerabezaroan eta unibertsitate garaian, eta "horrek egin du" bere egungo izana. Parean elkarteak hainbat gai parez pare ezagutu eta lantzeko beta ematen dio.

"Gure hirian berdintasun eza oso nabarmena da, Alardearen gatazkatik harago"

"Emakumeak artean" da Parean talde feministaren lan izarretako bat. Itzalpean eta estalirik egon dena azalera atera eta hainbat historia parez pare jarriko dizkigute. Garai bateko eta egungo emakumeen lan, esfortzu, bazterkeria, ilusio, amets eta borroka hain ezberdinak ez direla bistaratzeko. Izan bertako ala ez. Argazki eta bertsoak lagun, erakusketa batekin borobilduko dute prozesua Miren Lanz Solbesek (1988, Irun) eta taldeko gainontzeko kideek.

 AITZIBER ZAPIRAIN  IRANTZU PASTOR

### Zer da Parean elkarte?

Gaur egun gizartearen baitan eta periferian dauden pertsonak aintzat hartzen dituen proiektuak burutzen ditugu. Izan daitezke emakumeak, baita haurrak, adineko pertsonak zein emakume etorkinak ere, periferia horretan bizitzearen ondorioz jasaten dituzten baldintzengatik -izan prekaritatea, bazterketa, zapalkuntza...-. Mugimendu feministan militatu izan dut urte askoan, eta Parean beste kide batzuekin sorturiko proiektua da. IFZ gabe eman ditugu urteak eta urteak, baina ohartu ginen finantzazio beharra genuela garatu nahi genituen egitasmo batzuk aurrera eramateko. Formalki egituratzea erabaki genuen orduan.

### Urte askoan aritu zara hainbat herri mugimendutan militatzen, IFZ eta antzekorik gabe. Aldaketa handia izan da?

Nire lan profesionalean ere, aldi berean egokitu zait mundu burokratiko horretan murgiltzea eta aritzea, beraz ez zait hain bitxia egin. Elkarteak sortu

eta egituratzea, bi etapa izan ziren. Formalki egituratzeak molde berriekin aritzea ekarri digu, eta horrek berriz sortzea ere eskatu digu hein batean. Egokitzen ari gara eta mar-txa polita dugu. Orain dela hiru urte proiektu zehatz batzuk garatzeko sortu genuen elkarteak, eta gaur egun ohartu gara aukerak baditugula kide-aren batek edo bestek ibilbide profesiona- lbertatik garatu dezan; gustuko duzunean aritu eta ogibide izatea, hori oso polita da. 2019. urtekoa salto kualitatiboa izan da guretzako.

### Irungo hiriak baditu hainbat gai parez-pare hitz egin beharrekoak: Alardea, Irungo harrera sarea, mugalariak...

Bai, asko dago egiteko. Eta gure ka- suan, baita ikasteko ere. Berdintasun sinbolikoa landu nahian, *Emakumeak plazara* dokumentala argitaratu genuen 2018. urtean; gure hirian berdintasun eza oso nabarmena baita, Alardearen gatazkatik harago. Oso lan emankorra izan zen. Dokumentalarekin hasi aurretik, Irungo kale



"MIGRAZIO JARIO HANDIKO HIRIA DA IRUN, JOAN ETA ETORRI HANDIA DAGO HEMEN, BAINA BADIRA GELDITZEKO ASMOZ ETORRI ZIRENAK ETA DIRENAK (...) EGUNGO IRUNGO ERREALITEA IKUSIRIK, ASKOZ PENTSAERA ZABALAGOA UKAN BEHARKO GENUKE OROKORREAN".

izendegiaren azterketa egin genuen, eta soilik lauk zeukaten emakume izena! Artxiboa landu genuen, eta horretan, baita gainontzeko egitasmo gehienetan ere, irundar historialari feminista den Mextxe Trantxe Iparragirre izan genuen bidelagun. Lanketa horretatik zazpi historia aukeratu genituen eta horiekin osatu genuen dokumentala. Zazpi emakume dira, norbere izenean edo kolektibo baten izenean mintzo direnak. Plazara, espazio publikora, argitasunera atera nahi izan ditugu beti ezkutuan egon direnak.

Paseoak dira proiektu horren bigarren atala. Zazpi historia horiek grabatu egin ditugu, nahi duen orok mugikor bidez entzun ahal izateko Irunen buelta bat egin bitartean. Oso proiektu polita eta emankorra da.

#### **"Emakumeak artean" proiektua duzue orain esku artean.**

Irunera heldu diren bi belaunaldiren bizipenak bildu nahi izan ditugu azken proiektu honetan. Batetik, 60 eta 70eko hamarkaden artean iritsi ziren emakume etorkinen belaunaldiarena, eta bestetik 2000. eta 2010. urteen artean helduta-

koarena. Migrazio jario handiko hiria da Irun, joan eta etorri handia dago hemen, baina badira gelditzeko asmoz etorri zirenak eta direnak. Lehen belaunaldi hura Espainiako Estatutik etorri zen, eta bigarren belaunaldia aldiz Hego Ameriketatik edota Afrikatik. Azken horiekiko arrazakeria handia dago oraindik ere. Zurrumurruak aditzen dira: lana kentzera datozela, prestazioetatik bizi direla... Askok ahortzi egin dute baldintza beretan etorri zirela, eta arrazakeriaz jokatzeko dute. "Zergatik integratu dira batzuk hain azkar eta besteak ez?" edota "Zergatik epaitzen ditugu batzuk hain erraz eta besteak ez?", galdetu izan diogu gure buruari sarri. Jakina, gazteleraren ezagutzak eta kulturalki gertuago egon izanak badu horretan eragina, baina egungo Irungo errealitatea ikusirik, askoz pentsaera zabalagoa ukan beharko genuke orokorrean.

#### **Nola garatu duzue proiektua?**

Aipatu bi belaunaldietako emakumeekin hitz egin dugu, beren ahotik jaso ditugu bizipenak. Parez pare jarri gara haiekin. Beren errealitateak ere parez pare jarri ditugu, eta ohartu gara historiak berdi-

nak direla. Batzuen eta besteen izuak eta ilusioak berak dira.

Elkarrizketez gain argazkiak ere aterra ditugu, sentsibilizazio lana burutzeko argazki erakusketa bidez. Hain justu aurrez aipatutako bi galdera horien eta beste askoren erantzuna topatu nahian, eta eztabaida piztu nahian garatu dugu proiektua.

#### **Eta orain zer?**

Orain garapen lanari ekingo diogu, sentsibilizazioarekin hasteko. Argazkiak osatzen Bostok Photo taldeko Gari Garaialde argazkilariak parte hartu du, eta eskualdeko Irunabar bertso eskolako hainbat kidek emakume protagonistak bakoitzeko bertso sorta bana osatu dute. Atzeko lan guztia amaiturik, aldizkari bat argitaratuko dugu, eta horrez gainera urtarrilaren bigarren hamabostaldian Irungo zentro zibikoan jarriko ditugu ikusgai argazki eta bertsoak. Aurrerago, adineko egoitzetara eta emakume etorkinen elkarteetara hurbiltzeko asmoa dugu, sentsibilizazio lanarekin segitzeko eta parez pareko historien kontakizunarekin sentsibilizatzen jarraitzeko. ●